

# UPV/EHUko IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ERRETIROAK

2018

# AINTZAT HARTU BEHARREKOAK

1) Bi multzo nagusitan bereizten dira EHUko irakasle eta ikertzaileak erretiro eskubideari dagokionean:

- MUFACEN integratutako FUNTZIONARIOAK -klase pasiboak- (2011 baino lehenago funtzionario egindakoak).
- GIZARTE SEGURANTZAREN ERREGIMEN OROKORREAN integratutako LAN KONTRATUDUNAK eta 2011tik gerozko FUNTZIONARIOAK

2) MUFACE - klase pasiboen erregimen berezia- desagertzea doa. ADI, ez baitakigu noiz gertatuko den hori. Baliteke luze jotzea, gaur egun integratuta dauden funtzionario guztiek erretiroa hartu arte, alegia. Baina baliteke hori baino lehenago, sistema biak, MUFACE eta Gizarte Segurantzaren, bat egitea eta erretiro moduak ere bateratzea. Gaur egun ez dago ziurtatzerik zer gertatuko den. Beraz hemen jasotzen dena gaur egun indarrean dagoen araudia da, baina gogoan izan ez dakigula noiz arte egongo den indarrean.

3) 2013an GIZARTE SEGURANTZAKO erretiro eta pentsioen erregimenak aldatzen zituen araudia sartu zen indarrean. Araudi honen eraginak modu progresiboan joango dira igartzen 2027 bitartean eta oro har, erretiroa hartzeko adina atzeratzea, kotizazio-aldien luzatzea eta pentsioen balioa galtzea ekarriko ditu. Pentsioen desbalarizazioa gauzatzeko, jasangarritasun indize bat ezarri zen, 2019tik aurrera indarrean sartu beharko zena. Alabaina Toledoko Hitzarmenaren azken erabakiak kolokan jarri du indizearen aplikazioa eta pentsioen bilakaera KPIren bilakaerarekin lotzea proposatu du. Ikusi behar zertan geratzen den guztia.

4) Unibertsitateak eta sindikatuok zenbait hitzarmen ditugu sinatuak, irakasle eta ikertzaileen zahartzea kudeatze aldera, erretiroak sustatuz. Hartara, kasu gehienetan, erretiroa aurreratuz gero, aukera dago kredituen murrizketak izateko edo diru sariak jasotzeko.

5) Unibertsitateak urtero bi deialdi ateratzen ditu jakiteko nortzuk izango duten erretiro aurreratua eskatzeko asmoa eta hari lotutako kreditu murrizketak edo diru sariak. Adi haietara.

eman ta zabal zazu



# MUFACEko FUNTZIONARIOAK: ERRETIRO MOTAK ETA ADINAK

## Derrigorrezko erretiroa

Baldintza: 15 urte zerbitzuan

70 urterekin

pizgarririk ez

## Borondatezko erretiroa

Baldintza: 15 urte zerbitzuan

65-69 urterekin

Pizgarririk ez

## Borondatezko erretiro aurreratua

60-64 urterekin

Baldintza: **30 urte zerbitzuan**  
(azken 5 urteak klase pasiboetan)

**PIZGARRIAK**  
Bateraezinak dira  
(bata edo bestea,  
dirua ala kreditu  
murrizketa )

### A) KALTE ORDAINAK, DIRUTAN:

erretiro aurreratua hartzerakoan eskatzen eta ordaintzen dira; kopuruak eta moduak hitzarmenez finkatuta eta ziurtatuta daude **2.018 arte (urte hori barne)**. Hilabeteko bakoitzaren kopurua jakiteko urteko soldata zati 12 zatitu behar da.

Adina	Azken 10 urteak EHUn	Azken hamar urteak EHUn ez
60	18 hil.	13 hil.
61	15 hil.	11 hil.
62	12 hil.	9 hil.
63	8 hil.	7 hil.
64	4 hil.	4 hil.

### B) IRAKASKUNTZA KREDITUEN MURRIZKETA:

erretiro aurreratua hartu baino **bost urte** lehenagotik har daiteke, honako eskalaren arabera:

5 urte lehenago: 4 kr.  
4 urte lehenago: 6 kr.  
3 urte lehenago: 8 kr.  
2 urte lehenago: 10 kr.  
1 urte lehenago: 10 kr.

# MUFACEko FUNTZIONARIOAK: PENTSIOAK

BI ALDAGAI nagusiren arabera kalkulatzen dira klase pasiboen pentsioak :

- **HARTZEKO ERREGULATZAILEA (HE):** arauz (aurrekontu legean) ezartzen dira, lan- kategorien arabera
- **KOEFIZIENTE BIDERKATZAILEA:** zerbitzu/kotizazio urteen arabera finkatzen da

## PENTSIOA: HE x Koefizientea

\*Baina ADI, pentsio maximoa dago eta!!!!

### Koefizienteak

KOTIZAZIO URTEAK	%	KOTIZAZIO URTEAK	%	KOTIZAZIO URTEAK	%	KOTIZAZIO URTEAK	%
1	1,24	10	15,66	20	45,19	28	74,42
2	2,55	11	17,71	21	48,84	29	78,08
3	3,88	12	19,86	22	52,52	30	81,73
4	5,31	13	22,10	23	56,15	31	85,38
5	6,83	14	24,45	24	59,81	<b>32</b>	<b>89,04</b>
6	8,43	16	30,57	25	63,46	33	92,69
7	10,11	17	34,23	26	67,11	34	96,35
8	11,88	18	37,88	27	70,77	35	100
9	13,73	19	41,54				

Pentsio maximoa  
32 urteko kotizazio-  
aldiarekin lortzen da

### PENTSIO MAXIMOA

Kopuru Gordinak:  
36.121,80€ urtean  
2.580,13€ hilean  
(14 ordainketa)

∴

Kopuru garbia: (aprox.)  
2.100€ hilean

2017ko balioak

**HE**  
(A-1, lizentziadunak)  
**40.460,17€ (urtean)**

Informazio gehiago: <http://www.clasespasivas.sepg.pap.minhafp.gob.es/>

# GIZARTE SEGURANTZA: ERRETIRO MOTAK ETA ADINAK


Gizarte Segurantzaren erregimen orokorraren barruan dauden langileen erretiroaren araudia 2013an aldatu zen. Ondorioz, **erretiro arrunta** hartu ahal izateko gutxieneko adina edo hura 65 urterekin lortzeko eduki beharreko kotizazio urte kopurua urtetik urtera handitzen joango dira 2027ra arte, hemen zehazten den eskalaren arabera. Hartara 2027tik aurrera erretiro arrunta hartzeko adina 67 urtetan ezarriko da, 2013an baino bi urte beranduago, alegia, eta erretiro arrunta 65 urterekin hartu ahal izateko kotizazio-aldia 38 urte eta sei hilabetean ezarriko da (2013an baino 3 urte eta 3 hilabete gehiago)

Urtea	Kotizatutako aldiak		Erretiro arrunta eskatzeko adina	Urtea	Kotizatutako aldiak		Erretiro arrunta eskatzeko adina
2013	35 urte + 3 hilabete baino	gehiago	65 urte	2020	37 urte baino	gehiago	65 urte
		gutxiago	65 urte + hilabete 1			gutxiago	65 urte + 10 hilabete
2014	35 urte + 6 hilabete baino	gehiago	65 urte	2021	37 urte + 3 hilabete baino	gehiago	65 urte
		gutxiago	65 urte + 2 hilabete			gutxiago	66 urte
2015	35 urte + 9 hilabete baino	gehiago	65 urte	2022	37 urte + 6 hilabete baino	gehiago	65 urte
		gutxiago	65 urte + 3 hilabete			gutxiago	66 urte + 2 hilabete
2016	36 urte baino	gehiago	65 urte	2023	37 urte + 9 hilabete baino	gehiago	65 urte
		gutxiago	65 urte + 4 hilabete			gutxiago	66 urte + 4 hilabete
2017	36 urte + 3 hilabete baino	gehiago	65 urte	2024	38 urte baino	gehiago	65 urte
		gutxiago	65 urte + 5 hilabete			gutxiago	66 urte + 6 hilabete
2018	36 urte + 6 hilabete baino	gehiago	65 urte	2025	38 urte + 3 hilabete baino	gehiago	65 urte
		gutxiago	65 urte + 6 hilabete			gutxiago	66 urte + 8 hilabete
2019	36 urte + 9 hilabete baino	gehiago	65 urte	2026	38 urte + 3 hilabete baino	gehiago	65 urte
		gutxiago	65 urte + 8 hilabete			gutxiago	66 urte + 10 hilabete
				2027	38 urte + 6 hilabete baino	gehiago	65 urte
						gutxiago	67 urte

# GIZARTE SEGURANTZA: ERRETIRO MOTAK ETA ADINAK

Aurrekoaren arabera, orduan, aurten, **2018an**, honela geratuko litzateke erretiroen koadroa Erregimen Orokorreko irakasle funtzionario zein laboralentzat.

MOTA	ADINA	BALDINTZAK	PIZGARRIAK	
<b>Erretiro arrunta</b>	65 urte	36 urte eta 6 hilabete kotizatuta	Irakaskuntza-kredituen murrizketak, erretiroa hartu baino bost urte lehenagotik eska daitezkeenak, honako eskalaren arabera: 5 urte lehenago: 4 kr. 4 urte lehenago: 6 kr. 3 urte lehenago: 8 kr. 2 urte lehenago: 10 kr. 1 urte lehenago: 10 kr.	
	65 urte + 5 hilabete	15 urte kotizatuta, gutxienez (adi geratzen den pentsioarekin!!)		
<b>Borondatezko erretiro aurreratua</b>	63 urte	36 urte eta 6 hilabete kotizatuta izatea gutxienez	<u>Irakaskuntza-kredituen murrizketak</u>  erretiroa hartu baino bost urte lehenagotik, honako eskalaren arabera: 5 urte lehenago: 4 kr. 4 urte lehenago: 6 kr. 3 urte lehenago: 8 kr. 2 urte lehenago: 10 kr. 1 urte lehenago: 10 kr.	<u>Kalteordainak</u>  63 urterekin eskatuz gero: 8 hilabeteko soldata (7 hilabete langileak azken hamar urteak ez baditu EHU eman)  64 urterekin eskatuz gero: 4 hilabeteko soldata
	63 urte + 5 hilabetetik aurrera	35 urte kotizatuta izatea, haietako 2 azken 15 urteetan		
<p><b>Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean, erretiro mota hau har daiteke langileari erretiro arrunta hartzea legokiokeena baina bi urte lehenagotik aurrera.</b>  <b>ADI: erretiro mota honek eragin negatiboa du pentsioetan: murrizketak dakartza (%16raino) eta gehienezko pentsioa ere bestela izango litzatekeena baino baxuagoa (haren %96eraino, alegia, %0.5 gutxiago legokiokeen erretiro data aurreratzen den hiruhilabeteko bakoitzagatik)</b></p>				
<b>Erretiro partziala (txandakako kontratuarekin)</b>	<p>Formula honen arabera, erretiro arrunteko adina baino lau urte lehenago erretiro partziala har lezake langileak. Legean zehaztutako portzentajearen murriztuko litzateke irakasle-ikertzailearen lanaldia. Langileak bere soldataren portzentaje bat jasoko luke Unibertsitateetik eta pentsioaren beste bat Gizarte Segurantzatik. Lau urte horietan, halaber, langileak lanaldi osoan jardungo balu bezala kotizatu beharko luke Unibertsitateak Gizarte Segurantzara. Gainera Unibertsitateak langile berri bat kontratatuko beharko luke langilearen lanaldi partziala estaltzeko. Adi ordea, 2013ko Gizarte Segurantzaren araudi aldaketak eta horren karira EHU eta sindikatuen artean sinatutako hitzarmenaren ondorioz bi egoera ezberdin sortu baitira: 1957/12/31 baino lehen jaiotakoentzat bat eta data horren ondotik jaiotakoena bestea.</p>			
<b>(bakarrik irakasle eta ikertzaile laboralak, ez funtzionarioak)</b>	<p style="text-align: right;">Baldintzak eta pizgarriak hurrengo diapositibetan </p>			



# ERRETIRO PARTZIALA

## 1957/12/31 BAINO LEHEN JAIOTAKOAK (zerrenda itxia; 2013ko akordioa)

Irakasle-ikertzaile hauentzat erretiro arrunteko adina 65 urtetan mantentzen da eta erretiro partzialarekin 4 urtez aurrera daiteke, 65 urtetik 61 urtera. Txandakako kontratu hau eskatuz gero, 61 urte betetzen direnetik 65ekin erretiroa hartu arte **%75** murriztuko litzaioke lanaldia langileari. Horrezaz gain, unibertsitateko irakasle-ikertzaileei aukera ematen zaie egin beharreko lanaldiaren **%25** hori **urte bakarrean** pilatzeko. Hala eginez gero, 62 urterekin erabateko lanaldi murrizketa gozatu ahalko luke langileak. Hona baldintzak zehatzak

MOTA	ADINA	BALDINTZAK	PIZGARRIAK
<b>ERRETIRO PARTZIALA (txandakako kontratua)</b>	61	30 urte kotizatuta  Txandakako kontratuak irauten duen lau urtetan langileak jasoko du: <ul style="list-style-type: none"><li>legokiokeen soldataren %25 (osagarriak barne)</li><li>+</li><li>legokiokeen pentsioaren %75</li></ul>	4 hilabeteko soldata (hainbanatua -14 pagatik-)  EDO  Irakaskuntza-kredituen murrizketak, txandakako kontratua hartu baino bost urte lehenagotik eska daitezkeenak, honako eskalaren arabera: <ul style="list-style-type: none"><li>5 urte lehenago: 4 kr.</li><li>4 urte lehenago: 6 kr.</li><li>3 urte lehenago: 8 kr.</li><li>2 urte lehenago: 10 kr.</li><li>1 urte lehenago: 10 kr.</li></ul> Nahi izanez gero, urtebete atzera daiteke kreditu murrizketaren eskaera, hartara murrizketa txandakako kontratua hartzen den lehen urtean gozatu ahal izateko

# ERRETIRO PARTZIALA

## 1958/01/01tik AURRERA JAIOTAKOAK

Erretiro arrunta hartzeko adina atzeratu egin den bezala, erretiro partzialarena ere modu berean atzeratu egingo da, baita handitu ere eskatzen diren kotizazio urteak, honako taulan agertzen den modura:

Erretiro partziala hartuko den urtea	Eskatzen diren adina eta kotizazio urteak		33 urteko kotizazio-mugarekin eskatzen den adina
2013	61 urte + hilabete 1	33 urte + 3 hilabete (edo gehiago)	61 urte + hilabete 2
2014	61 urte + hilabete 2	33 urte + 6 hilabete (edo gehiago)	61 urte + 4 hilabete
2015	61 urte + 3 hilabete	33 urte + 9 hilabete (edo gehiago)	61 urte + 6 hilabete
2016	61 urte + 4 hilabete	34 urte	61 urte + 8 hilabete
2017	61 urte + 5 hilabete	34 urte + 3 hilabete (edo gehiago)	61 urte + 10 hilabete
2018	61 urte + 6 hilabete	34 urte + 6 hilabete (edo gehiago)	62 urte
2019	61 urte + 8 hilabete	34 urte + 9 hilabete (edo gehiago)	62 urte + 4 hilabete
2020	61 urte + 10 hilabete	35 urte	62 urte + 8 hilabete
2021	62 urte	35 urte + 3 hilabete (edo gehiago)	63 urte
2022	62 urte + 2 hilabete	35 urte + 6 hilabete (edo gehiago)	63 urte + 4 hilabete
2023	62 urte + 4 hilabete	35 urte + 9 hilabete (edo gehiago)	63 urte + 8 hilabete
2024	62 urte + 6 hilabete	36 urte	64 urte
2025	62 urte + 8 hilabete	36 urte + 3 hilabete (edo gehiago)	64 urte + 4 hilabete
2026	62 urte + 10 hilabete	36 urte + 3 hilabete (edo gehiago)	64 urte + 8 hilabete
2027 eta hurrengoak	63 urte	36 urte + 6 hilabete (edo gehiago)	65 urte

## OHARRA

Nolanahi ere oraindik argitu gabe dago nolakoa izango den irakasle-ikertzaile hauentzako erretiro partzialagatiko lanaldiaren murrizketa.

2013ko araudi berriaren arabera gehienezko murrizketa %50ekoa izango baita (orain %75ekoa da), nahiz eta aukerak zabaltzen diren murrizketa handiagoa izateko (baldin eta enpresak arduraldi osoko eta iraupen mugagabeko errelebo kontratua egiten badu). Hau Unibertsitatearekin adostu beharreko zerbait izango da, nahiz eta oraindik ez dugun bide honetan aurrera egiteko egutegirik.



# GIZARTE SEGURANTZA: PENTSIOAK

BI ALDAGAI nagusiren arabera kalkulatzen dira pentsioak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren baitan:

- **Oinarri Erregulatzaileria (OE):** kotizatutako kopuruen batz bestekoa
- **Portzentajea:** langileak egindako kotizazio urteen arabera

Bai Oinarri Erregulatzaileria, baita portzentajea ere, modu ezberdinean kalkulatzen dira, aplikatuko den araudiaren arabera, alegia, 2013 urtearen aurretikoa ala haren ondorengokoa.

## 2013 urtearen aurretiko araudia

**OE:** erretiroa hartu aurretiko azken hamabost urtetako kotizazio oinarrien batz bestekoa

**Portzentajea:** 15 urte kotizatuta, %50; 35 urte kotizatuta, %100; tarteko kotizazio urterekin, honako eskalaren arabera:

Kotizatutako urteak	%	Kotizatutako urteak	%
15	50	26	82
16	53	27	84
17	56	28	86
18	59	29	88
19	62	30	90
20	65	31	92
21	68	32	94
22	71	33	96
23	74	34	98
24	77	35	100
25	80		

## ADI

Gehienezko Oinarri Erregulatzaileria (GOE) eta Gehienezko Pentsioa (GP) zehazten baitira urtero.

2018 urtean haien balioak honakoak dira hileko (balio gordinak):

GOE: 3.751,26€

GP: 2.580,13€ (14 ordainketa urtean)

Gehienezko pentsioa, hartara, balio garbian, 2.100€ inguruan dago.

# GIZARTE SEGURANTZA: PENTSIOAK

## 2013 urteko araudia

**OE:** ondoko eskalaren arabera kalkulatu kotizazio oinarrien batz bestekoa; oro har, 2013an hasi eta 2022 arte, urtetik urtera 12 hilabetetan handituko da aintzat hartuko den kotizazio hilabate kopurua OEren batz bestekoa kalkulatzeko; zatitzailea, aldiz, 14 unitatetan handituko da urtetik urtera, 2022tik aurrera geratuko den batz bestekoa 300/350 izango delarik

**Portzentajea:** aldagarria, ondoko taulan zehazten den moduan:

## OINARRI ERREGULATZAILEAK

Urtea	Aintzat hartzen diren urteak	OE
2013	16	azken 192 hilabetetako kotizazioak /224
2014	17	azken 204 hilabetetako kotizazioak /238
2015	18	azken 216 hilabetetako kotizazioak /252
2016	19	azken 228 hilabetetako kotizazioak /266
2017	20	azken 240 hilabetetako kotizazioak /280
2018	21	azken 252 hilabetetako kotizazioak /294
2019	22	azken 264 hilabetetako kotizaioak /308
2020	23	azken 276 hilabetetako kotizazioak /322
2021	24	azken 288 hilabetetako kotizazioak /336
2022	25	azken 300 hilabetetako kotizazioak /350

PORTZENTAJEAK

Aplikazio aldia	Lehen 15 urteak	Hurrengo hilabetak (hilabete bakoitzeko)	Zenbat kotizazio urterekin %100?
2013 - 2019	%50	1 eta 163 bitartean +0,21 ----- 164. hilabetetik aurrera +0,19	35 urte eta 6 hilabete
2020 - 2022	%50	1 eta 106 bitartean +0,21 ----- 107 eta 252 bitartean +0,19	36 urte
2023 - 2026	%50	1 eta 49 bitartean +0,21 ----- 50 eta 258 bitartean +0,19	36 urte eta 6 hilabete
2027tik aurrera	%50	1 eta 248 bitartean +0,19 ----- 249 eta 264 bitartean +0,21	37 urte

adi, ez ahaztu gehienezko kopuruak daudela

2018

**Gehienezko OE:** 3.751,26€ (gordinak)

**Gehienezko pentsioa:** 2.580,13€ (gordinak) – 2.100€ inguru (garbi)

